

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2020 Erabakia, urtarrilaren 21ekoa. Onestea eguneratu daitezela Aldundi honen eta bere erakunde autonomoen lanpostu zerrendak, esleitutako berariazko osagarriari dagokionez, bai eta langile lan kontratadunen soldata taulak eta goi kargudunen eta behin-behineko langileen ordainsariak ere

Foru Gobernu Kontseilua organo eskuduna da Foru Aldundiko eta bere organismo autonomoetako lanpostuen zerrendak onesteko, baita funtzionarioen eta lan kontratuko langileen lan baldintzak onesteko ere.

Arabako Lurralde Historikoaren 2018rako aurrekontua, abenduaren 28ko 71/2018 Foru Dekretuaren bidez bere aplikazioan 2019rako luzatua, gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauaren 25.2 artikulua funts baten hornidura gaitu zuen foru sektore publikoko funtzionarioen eta lan kontratuko langileak ordaintzeko produktibitate osagarri baten bitartez. Ekitaldi honetan, dagokion funtsa hornitu da eta banan-banan esleitu da benetako lanaldia betetzearekin loturik.

Halaber, esandako arauan aurreikusten da ekitaldian osagarri horri dagozkion zenbatekoei aplikagarria zaiela 13/2001 Legearen hamaikagarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, ordainsari finkeo eta aldizkako barruan sendotzearen ondorioetarako. Hori guztia, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Aginduzko txostenak ikusirik, horietan oinarrituz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak, Lurralde Oreakaren Saileko diputatuak, Kultura eta Kirol Saileko diputatuak eta Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatuak hala proposatuta,

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiko eta bere organismo autonomoetako lanpostuen zerrendak eguneratzea, 2019ko ekitaldirako sortutako produktibitate osagarriaren zenbatekoa lanpostu bakoitzari esleitutako berariazko osagarriaren barruan sartuz, hargatik eragotzi gabe haien zerbitzura dauden langileei esleitutako beste ordainsari kontzeptu aldakor batzuetan bidezkoa den sendotzea.

Bigarrena. Organismo autonomoetako lan kontratuko langileen lansari taulak eguneratzea, 2019ko produktibitate osagarriaren zenbatekoa ordainsari kontzeptu finkeoaren barruan sartuz, hargatik eragotzi gabe haien zerbitzura dauden langileei esleitutako beste ordainsari kontzeptu aldakor batzuetan bidezkoa den sendotzea.

Hirugarrena. Era berean, eguneratu behar dira foru kargudun publikoei eta behin-behineko langileei dagozkien ordainsariak, Arabako Lurralde Historikoaren 2018ko aurrekontua gauzatzeko abenduaren 22ko 21/2017 Foru Arauaren 25.3 eta 25.4 artikuluetan ezarritakoari jarraituz, eta foru arau hori luzatzen duen abenduaren 28ko 71/2018 Dekretuaren arabera.

Laugarrena. Erabaki honek 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bosgarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gas-teizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, berraztertze errekurtsua ebazpena eman duen

erakundearen aurrean, hilabete pasatu baino lehen, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritik (horrekin lotuta dago urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan ezartzen duena).

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA